



ELEKTRARIDE

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Elektaridek martxan jarri nahi duen proiektua zerbitzu bat da. Gure zerbitzuak, patineteen bidezko garraioan datza. Oreretako auzo batetik bestera joateko komunikabide arazoak daude eta garraio publikoak, autobusek adibidez, ez dute arazo hau asetzen. Beraz, gure proposamena Oreretako auzo guztietan patineteak jartzea izan da, herritar guztientzat eskuragarri egongo dena, auzo batetik bestera garraiatzeko aukera izan dezaten.

Proiektu hau aurrera eramateko, ideia berritzaileagoak gauzatu ditugu, hala nola, aplikazio bat sortu dugu, zerbitzua eskuragarriagoa izan dadin. Gainera zerbitzu hau jasangarria izatea nahi dugu eta horretarako, patineteak eguzki plaken bitartez kargatuko ditugu beste garraio mota batzuk baino gutxiago kutsatzeko. Hala eta guztiz ere, gure proiektua gauzatu ahal izateko egin ditugun pausoak hurrengo ataletan azalduko ditugu.

Irene Echamendi, Malen Lopez, Unax Agote, Adur Zubieta eta Aiora Mata